

## Ilmo. Dr. Rodrigo Sáez de Mercado de Zuazola

Deia, 1983-07-12.

Tituludun gizon goren hau ez da euskaldunen artean behar zukeen hainbat ezaguna.

Bere obra da ezagunagoa: *Oñatiko Unibertsitatea*.

Nor izan zen Euskal Herriko historia osoan bere herriak unibertsitatea izan zezan zituen diru eta arima osoa ere horretarako eskaini zituen gizona? Rodrigo Sáez de Mercado de Zuazola, Oñatiko Kale Berrian jaio zen. Gurasoen izenak hor daude: Elvira de Zuazola zuen ama, Ochoa Ibañez de Mercado, aita; baina sasikoa zela ere pentsatzen dute. Ikasi: herrian lehenengo letra eta numeroak; apaizkuntzarako lehen tonsura bertako San Migel elizan (1480); lehen mailako ordenak Logroñon (1480an bertan), oso presaka!, eta goi mailakoak, berriz, oso berandu, hamar urte geroago! Harritzekoa da, baita ere, hemendik aurrera egin zuen karrera: Inkisidore (1499); Napolesen aurkitzen da 1506an Fernando Katolikoa erregearekin, inork ez daki zertan, baina ondasunez betea itzultzen da handik!

Bere biografo nagusia, Arantzazuko fraile den Jose A. Lizarraldek aitortzen du gizon hau misteriotsua agertzen dela honetan eta beste gertaera batzutan ere.

Tituluak datoz gero zerutik, euria bezala: Astorgako monastegian *abad* (1507); Salamancan eta Leonen, bitan urte berean, *priore* (1509), "eskubide eta errenta guztiekin"; don Fernando *erregearen kontseilari* izendatzen dute; Valenciako elizaren *buru* (1510). Eta hau dena oraindik apaiz soil zela!, ez zen oraindik presbiter ere; bainan norbait konturatu zen honetaz, eta bapatean *subdiakono*, *diakono*, *presbiter* eta *gotzai* egiten dute, denak batera!

Lizarraldek dion bezala "a todo escape".

Eta hemen dator euskaldunentzat interes handia duen zerbait: Gaztelak 1512an Nafarroa inbaditzen duenean, Mercado de Zuazola izendatzen du gobernadore. Maquiavelok, *"El Principe"* liburu famatuan idatzitakoak Fernando Katolikoarengandik ikasiak ditu, espresuki hark aitortzen duen bezala. hara zer dioen liburu honetan: "Horiek (hartutako herriak) askatasunean eta bere legez bizitzen ohituak badaude, galdu nahi ez dituenak hiru bide ditu: *Bat*, suntsitu; *bestea*, bertara jendea sartu eta han bizi, eta *azkenekoa*, utzi bere gisa bizitzen, hemengo zergak jaso eta bertakoak konfiantzan hartuko dituztenak jarri agintzen. Fernando Mercado de Zuazolaz gainera, bi bertako jarri zituen: Jasso bat, eta Lizarazu izeneko beste bat.

Hala ere, ezin diogu Euskal Herriari bere lehen Unibertsitatea eraikitzeke meriturik kendu.

Ez bait zen, ordura arte, eta ez baita harrezkero ere inor horrenbeste arduratu.